

LOU

Unibertsitarioak LOUren aur

Euskal Herriko errektore, irakasle, sindikatu eta ikasleek arbuiatu egin dute Espainiako Hezkuntza Ministerioak prestatu duen unibertsitate legea, aho batez. Iban Ocio

Anjeles Iztueta

Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua



«Desobediencia ere erabiltzeko gertu gara LOUk inposatutakoak bazter uzteko»

1. Hezkuntza Ministerioak eta PPKo gobernuak etorkizun urriko legea sortu dute; LOUk ez die erantzuten ikastegien premiei, eta zentralismo zorrotzenaren isla da. Aldez aurreko azterketarik egin gabe osatu dute legea.
2. Ikastegien autonomiaren aurka egiten du legeak. Burujabetza politikoa ere ezerezatzen du; autonomia erkidegoak sistemaren finantzaile huts bihurtzen ditu. Madrilen zehaztu gura dituzte gai erabakigarriak: besteak beste, ikastegi sailak nola arautu behar diren, ezagutza arloak zein diren, titulazioetan irakasleak onartzeko mugak...
3. Ziurra da LOUk gure berezitasun linguistikoa urratuko duena. Legeak auzitan jartzen du euskara unibertsitateko hizkuntza gisa garatzea; unibertsitate lege berriak entzungor egiten dio euskal ikastegietako ezaugarri behinena den elebitasunari.
4. Lege propioa lantzea proposatu dugu, unibertsitate sistemak bateratzen dituen sektore guztien adostasuna abiatu. Ikasle, irakasle, sindikatu eta unibertsitate agintariak asebeteko dituen legea eraiki gura dugu. Litekeena da euskal gizarteak hitzarturiko legea eta LOU zenbait auzitan bat ez etortzea. Konponbideak agortuta, Jaurlaritza gertu da desobediencia ere erabiltzeko legeak inposatutakoak baztertzeko, betiere euskal gizartearen mesedetan.

Inkestako galderak

1. Zer irizten diozu egunotan hitzartzekoa den unibertsitate legeari?
2. Zeintzuk dira LOUk sortuko dituen kalte behinenak eta zein aldaketa eragingo du zure ardurapeko esparruan?
3. Euskarazko hezkuntzari eta euskal curriculumari enbarazu egiten dio LOUk?
4. Zein jardunbideri helduko diozue unibertsitate legearen sortzaileek hobetsitako ikastegi ereduari aurre egiteko?

Manu Montero

EHUko errektorea



«Unibertsitatea sustatzen den taldeen esku-hartzea gutxietsi dute, eta ikastegien arbuioa jaso»

1. Unibertsitate lege homogeneizatzailea da LOU; ikastegi arteko ezberdintasunak gogoan hartu gabe sortutakoa, alegia. Ikastegiak sustatzen diren taldeen iritzia gutxietsi dute, eta komunitate unibertsitarioaren arbuioa jaso.
2. Legeak proposaturiko gobernu sistemak unibertsitateen kudeaketa zailtzen du; ikastegien jarduna arautzen duten irizpide demokratikoenak ezabatzen ditu: ikasleen ordezkariak, irakasleen gaitzuntza sistema, euskal curriculumaren diseinua eta abar.
3. Irakasle elebidunak hartzeko, euskarazko ikastaroak ugaltzeko eta unibertsitatearen egiturak euskalduntzeko oztopo da LOU. EHUK, baina, tinko helduko die euskal lerroak garatzeari eta II. Euskalduntze Planari.
4. Legea errotik itxuraldatzeko eskaria egin diogu Madrili. LOU onartzen denetik aitzina, bestelako jardunbideei ekin beharko diegu.

Inaxio Oliveri

Mondragon Unibertsitateko errektorea



«Legeak unibertsitate publikoei egiten die kalte nagusiki, baina eskola pribatuei ere bai»

1. LOU ez da unibertsitateak bere orokortasunean behar duen legea. Atzera begira jartzen ditu ikastegiak. Gutxieneko adostasun batetik abiatu beharko litzateke legea, eta ez inposizioetatik.
2. Finantza auziak arautzeari muzin egin dio Madrillgo gobernuak; ikastegien jardura ekonomikoa sendotzeko galga da legea. Unibertsitateen egiturak estutuko ditu LOUk, eta eskola bakoitzaren partikularitasunak alboratuko. Jakina, legeak unibertsitate publikoei egiten die kalte nagusiki, baina ikastegi pribatuei ere bai. Lege organikoa barik, erreglamendu organikoa da ezarri gura dutena.
3. MUNIn euskarazko hezkuntzak ez du atzera egingo; baliabide nahikoa dugu.
4. Jaurlaritzarekin batera lege propioa eraikitzen hasi behar dugu. Horretarako, nahitaezkoa da gurean ditugun unibertsitateen arteko elkarlana areagotzea.

Jose Maria Abrego

Deustuko Unibertsitateko errektorea




«LOUk trabak jartzen dizkie unibertsitateak Europari begira eraikitzeko saioei»

1. Deustuko Unibertsitatean LOUren ondorioak apalak dira oso, ikastegi pribatua izaki. Espainian dauden halako erakunde erlijiosook Vaticanoaren menekoak gara. Estatuak esku-hartzea txikia du ikastegien antolaketan. Legeak, baina, gainerako unibertsitateekin batera egin beharreko urratsak eragozten ditu.
2. Unibertsitateak Europari begira eraikitzeko saioei trabak jartzen dizkie, batetik. Unibertsitate publikoen kudeaketa sistema hankaz gora jartzen du, bestetik. Gertuko ikastegiekiko elkartasunak badu erantzukizunik DUren legearen aurkako jarreran.
3. Ikastegian abiatutako euskalduntze planak ez du aldaketarik pairatuko.
4. Unibertsitate publikoek erabakitako lan ildoak bultzatuko ditugu, eurak baitira erakunde dohakabeak.

A. Perez Prados

NUPEko errektorea



«LOUk ez die gaitzik eragingo euskarazko ikastaroei, edo euskalduntze planari»

1. Espainiako Gobernuak aukera paregabea galdu du uni-

bertsitatea gaurkotzeko eta XXI. gizaldiko ikastegiak kudeaketa baliabide egokiez hornitzeko. LOUk, hala ere, ez ditu eragingo hainbatek aipatu dituzten traba gaiztoak.

2. Legeak argi-ilun ugari dauka. Ikastegiek eskainitako hezkuntza kalitatea neurtzeko Agentzia Nazionala sortzeari egokia deritzot. Alabaina, unibertsitarion esanak gomutatu ez izana enbarazu dena argi dago. LOUk ikastegi pribatuak laguntzeari ere kritika egin diogu NUPen.
3. LOUk ez ditu murriztuko euskarazko ikastaroak, ezta euskalduntze plana betetzea berandutuko ere.
4. Legea onartu eta horren araberako jardunbideak ezarri arte itxarotea da egokiena, LOUren gorpuzkera dezente alda baitaiteke.

Jose Maria Bastero

Nafarroako Unibertsitateko errektorea



«Ez dut uste legeak unibertsitate eredu elitista eta zesarista sortuko duenik»

1. Unibertsitate lege berri baten premia agerikoa zen. LOU atondu dute. Legea kolpe batez errefusatzea ez da zilegi.
2. Ikusteke dago legeak proposatzen duen unibertsitate ereduaren eraginak zein diren. Ildo horretan, ez dut uste LOUk ikastegi elitista eta zesarista sortuko duenik. Aitzitik, mesedegarria ere izan daiteke unibertsitateen arteko lehia areagotu eta hezkuntzaren kalitatea ziurtatzeko. Egia da, halaber, gizartearen hitzari dagokionez okerreko bidetik jo duela Espainiako Gobernuak. Alde onak eta txarrak ditu LOUk, edozein legeren moduan, noski.
3. Euskal ikasketen Institutuan mudantzarik ez da jazoko.
4. Ezer aipagarririk ez dugu egingo. Ez dugu uste LOUk Nafarroako Unibertsitatearen nortasunaren aurka jontzen duenik, inondik inora.